

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Karga elektriko kontzeptuaren bidez elektrizazio fenomenoak azaldu, materiaren izaera elektrikoan oinarrituz, eta bi kargen arteko elkarreagina Coulomben legearen bidez aztertu hainbat informazio euskarri erabiliz.</p>	<p>1.1. Materiaren izaera elektrikoaren adierazpenak ongi arrazoitu ditu elementuen egitura atomikoa kontuan izanda.</p> <p>1.2. Fenomeno elektrikoa azaltzeko, momentu ezberdinetan gorputzen karga elektrikoaren banaketa ongi marraztu du.</p> <p>1.3. Identifikatutako elektrizazio motaren arabera, gertatutakoaren azalpen zientifikoa eman du.</p> <p>1.4. Coulomben legea aplikatuz eta kalkuluetan oinarrituta, ondorioak egoki azaldu ditu.</p>
<p>2. Magnitude elektrikoaren (intentsitatea, tentsioa, erresistentzia elektrikoaren eta potentzia) arteko erlazioa (Ohm-en legea) ikertu, zirkuitu elektrikoak irudikatuz, hainbat euskarriaren bidez eta egin beharreko kalkuluak eginez.</p>	<p>2.1. Zirkuitu elektrikoak ongi irudikatu ditu, elementuak ongi kokatuz eta zirkuitu elektrikoaren eskemak ongi marraztuz.</p> <p>2.2. Zirkuitu elektrikoetan magnituden elektrikoaren neurketa egiteko gailuak zeintzuk diren eta zirkuituetan non kokatu behar diren ondo adierazi du.</p> <p>2.3. Magnitude elektrikoaren erlazioa adierazten duen legea eman du, beren unitateak eta dagozkien sinboloak ongi erlazionatuz.</p> <p>2.4. Ohmen legearen bidez magnituden elektrikoak ongi kalkulatu ditu.</p>
<p>3. Korrante elektrikoaren aplikazio praktiko arruntak identifikatu eta deskribatu, haren efektuak (termikoa, magnetikoa, indukzio elektromagnetikoa, mekanikoa) ulertuz.</p>	<p>3.1. Etxeko-tresnaren magnituden elektrikoaren kalkuluak ongi egin ditu, eta emaitzetan oinarrituta ondorio zuzenak eman ditu arrazoi zientifikoak emanez.</p>
<p>4. Jasangarriak eta eraginkorrak diren erabilerak identifikatu, elektrizitatearen erabileraren inguruko informazioa aztertuz eta magnituden elektrikoetan oinarrituz.</p>	<p>3.2. Eraginkortasun energetikoaren ikuspuntutik aukeraketa egin du arrazoi egokiak emanez.</p>